



EBAZPENA, 2012KO MAIATZAREN 3KOA, HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURUORDEARENA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO BULEGOETAN JENDEA HARTZEKO ORDUTEGIAK EZARTZEN DITUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen eta lan-kontratadun langileen Negoziazio-Mahietan egungo ordutegi eta lanaldi eremua berrikusi da eta eremu berria ezartzea hitzartu da. Eremu berri hori hiru lanaldi normalizatu motatan egituratzen da: lanaldi zatitua, lanaldi mistoa eta lanaldi jarraitua.

Bestalde, 2011. urteaz geroztik jendea hartzeko orokorrean finkatuta dagoen ordutegia astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:00etara eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etarakoa da. Lanaldi-eredu berriarekin, gerta liteke arratsaldeko ordu-tartean jendeari zerbitzua eman ahal ez izatea. Langileek, lanaldi jarraitua edo lanaldi mistoa aukeratzen dutenean gertatuko da hori.

Hori dela-eta, arazoari konponbidea eman behar zaio, akordio arautzaileak eta hitzarmen kolektiboak lanaldi eta ordutegien arloan aitortzen dituzten eskubideak baliatzea ahalbidetuz eta aldi berean herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitateari eutsiz.

Horretarako, langileen ordutegia edozein izanik ere zerbitzu egokia emango duen jendea hartzeko ordu-tarte bat ezarri beharra dago. Horretarako eman da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eta erakunde autonomoen bulegoetan jendea hartzeko ordutegiak ezartzen dituen ebazpen hau.

Osagarriak dira sail eta erakunde autonomoen bulegoetan jendea hartzeko zerbitzua eta herritarrentzako Zuzenean zerbitzuak modu zentralizatu eta kanal anitzekoaren bidez herritarrei informazioa eta harrera orokorra emateko zerbitzuak. Zuzenean zerbitzuaren helburua herritarren beharrianetara egokitutako zerbitzua ematea da eta, horregatik, ordutegi berezia dauka, zabalagoa eta etengabekoa.

Horiek horrela, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuarekin bat etorritz, izan ere 20. g) artikulua Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari agintzen baitio langileen ohiko kudeaketan sailetarako eta erakunde autonomoetarako aplikazio erkideko irizpideak ezartzea, Jaurlaritzak arlo honetarako onartzen duen politika orokorra betez; eta 15.a) eta d) artikuluek Herri Administrazio Sailburuordetzari ezartzen baitiote herri-administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta eraberritzeko lanak nahiz herritarrei informazioa eta arreta emateko mekanismo, tresna eta zerbitzu zentralizatua eta bide anitzekoa bultzatu, zuzendu eta garatzeko ardura, honako hau

EBATZI DUT:


Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Erakunde Autonomoen bulegoen jendea hartzeko ordutegia hauxe izango da: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara.

Bigarrena.- Herritarrentzako Zuzenean zerbitzuaren jendea hartzeko ordutegia, Bilbo, Donostia eta Gasteizeko bulegoetan nahiz 012 telefono-zenbakian, hauxe izango da: 8:00etatik 20:00etara, etenik gabe, astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik. Hilabete horretan ordutegia 8:00etatik 14:30etara izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 3.



HERRI ADMINISTRAZIOKO
SAILBURUORDEA
Elena Pérez Barredo.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
FUNTZIO PUBLIKOKO
SAILBURUORDEA
JUSTIZIA ETANERAN
ADMINISTRAZIO SAILA
Funtzio Publikoaren Sarbidera
Juan Carlos Ramos Rodríguez.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Viceconsejería de Función Pública

Oharra: 2013. urtean herritarrei arreta zerbitzuko ordutegia aldatu zen, aurrez aurreko zerbitzuan zein 012 telefono bidezko arretan. Harrezkero, etenik gabeko ordutegia ondorengo da: astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:30ak arte, abuztuan izan ezik (8:00etatik 14:30ak arte).